

Minima theoria, maxima practica

M. Karmen Garmendia Lasa

Latinez idatzitako esaldi horixe zen, Don Manuel Lekuona oiartzuar apaiz ospetsu hark eman zidan txosten batean lematzat zetorrena. Urteak joan diren arren, sekula ez ditut ahaztu ez lema, ezta paper horietan zetorrena ere. Harira datozkit orain, azkenaldi honetan maiz ari gare-lako entzuten eta irakurtzen hezkuntza sisteman hizkuntzen ezagutza hobetze aldera hartu beharreko erabakien berri. Lekuonak emandako txostena joan den mendean, 20ko hamarkadan egina zen eta geroxeago esango dut zeri zegokion.

Gure artean edonor kontura daiteke eskolak eta hizkuntzak duten lotura estuaz. Lotura honek, ordea, izaera berezia izan lezake jokoan hizkuntza bat baino gehiago dagoenean. Euskal Herrian bertan, XVIII. mendean, Sarako Etcheberry, Larramendi andoaindarra eta Cardaberaz hernaniarra kezkatu azaldu ziren euren izkribuetan, euskarak eskoletan lekurik ez zuelako. Geroxeago, XIX. mendean, Ulibarri, Iztueta eta Iturriaga idazleek ere ezin izan zuten euren kezka gorde bailara euskaldunetako eskoletan gaztelania hutsean erakusteak zekartzan arazoez.

Gizon horietako bat, Antonio Pascual Iturriaga, Hernanin eskola sortzeraino iritsi zen, eta ez nolanhiko planteamenduarekin. Frantsesez "avant la lettre" esaten dute, garaia baino lehen alegia, eta horixe uste dut nik egin zuela hernaniarrak, garaiari aurea hartu eta lau hizkuntzatan irakatsiko zuen eskola sortu: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta latinez. Inguruan zituen agintariek ez zuten ordea, tamalez, ez ulertu ezta begi onez ikusi ere Iturriagaren egitasmoa. Eskola itxi egin zuten eta Iturriaga bera, apaiz, idazle eta maisua, Voltaire-n jarraitzaile izendatu eta gaitzetsi. Ordurako, 1830ean, Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat idatzia zuen *Memoria para la conservación de la Lengua Bascongada*. Benetan hausnarketa interesgarria.

1896.ean Resurrección María Azkue-k, geroa Euskaltzaindiaren lehen burua izango zenak, "Colegio Icastechea" sortu zuen Bilbon eta



Jauntarkol.

Lasallearren eskutan ipini. Gaztelaniaz gain, euskara erakutsi eta lantzea, eta baita frantsesa ere, zuen helburu. Itxuraz, ez zuen urte luzez iraun baina hazia erein zuela esango nuke, XX. mendearen hasieratik aurrera, hainbat ekimen hezurramitzen saiatu zen jende argia azaltzen zaigulako. Gipuzkoan, esate baterako, azpimarragarria da guztiz Miguel Muñoa jaunak bultzatutako lan eskerga.

1918. urtean Eusko Ikaskuntza sortzea aldi berri bati ekitea izan zen alde askotatik begiratuta. Eusko Ikaskuntzak Euskal Herri osoa zuen bere jardunaren eremutzat. Gaur hainbestetan aipatzen den pluraltasuna barru-barruan itsatsia zeukan eta, nola ez, eusko gizarteak zituen arazo, premia, nahi eta ametsen zerrenda. Baita hezkuntza eta kulturaren alorrean ere. Ekimen ugari eta berritzaileen multzoa handia da. Izenen artean ezin ahaztu "Lizardi", "Aitzol", J. M. Barandiaran, M. Lekuona, J. Urquijo, Altzotar anai kaputxinoak, "Jautarkol" erreteriarra bera, eta abar luzea.

Eusko Ikaskuntzak bultzaturik, nazioartean puntako ziren erreferentziak ezagutu eta haien berri Euskal Herrian jakiteko zinez ahalegin handiak egin zituen hezkuntza alorrean. Montessori, Decroly, A.

Gali, P. Bovet... gure hezkuntza sistema eguneratu eta berritzeko apustuan gertutik ezagutu zituzten hemengo aitzindariak. Ikastetxe berriak irekitzen ere hasi ziren eta urte gutxitan ikastola mordoxka. Errenteriakoa, adibidez. 1928an, ordea, honek eta Tolosakoak arazoak izan zituzten ixteraino. 1931-1936 aldian, Errepublika garaian, Ikastolak sendotu egin ziren eta baita beste zenbait egitasmo ere. "El Día" egunkaria Errenterian kaleratu zen lehenengo aldiz 1930.ean, bertan ospatutako "Olerki egunean", Lauaxetak lehen saria irabazi zuen hartan.

Natorren hasierako izenburura. Don Manuel Lekuona urtetan Gasteizeko seminarioan irakasle izan zen 1936aren aurretik. Garai hartan apaiz gazte euskaldun asko, nahiz bizkaitar, nahiz gipuzkoar, Arabara destinatzen zituzten. Araban euskarak urtetan zeraman atzerakadaz jabeturik, "Euskaltzaindiaren laguntzailleak" izeneko

elkartea sortu eta apaiz zeuden herrietako haurrei euskaraz era atseginean erakustea erabaki zuten. Horretarako ipuinez, olerkiz, kantuz, dantzaz, eta soinetaz baliatu behar zutela erabaki zuten eta materialak sortzeari ekin zioten, "Minima theoria, maxima practica" lemapean. *Arabako aurrari euskeraz irakusteko entsaioak* izenarekin bildu zituzten denak makinaz idatzitako txosten batean. Gerra zibilak, jakina, eten ikaragarria ekarri zuen, baina mirari txiki bat gertatu zen. Milaka haur, irakasle eta gurasoek urtetan abestu ditugu, eta abesten jarraitzen dugu adibidez, "Moro katua" eta "Ama, nun egiten du kukuak kabia?". Bi abesti horiek bilduma horretakoak dira, Txomin Jakakortajarena berastegiarrak Araban apaiz zegoela eginak. Kukua auskalo nondik etorria zen, baina "Moro", itxuraz, Berastegiko katua zen, egilea bera bezalaxe.

